

EUSKARAREN NORMALKUNTZA- RAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Ba dirudi, dagoeneko euskal gizartean onartua dagoela hasteko behintzat, euskarak bere lekua behar lukeela Unibertsitateko irakas-hizkuntza bezala, bai eta ikerkuntzakoa bezala ere. Horretarako ez dago euskaltzale burubero eta erradikal izan beharrik gaurregun. Beste hainbat ez aipatzearren, aspaldiko 1966an Patxi Altunak nahiko ondo azalduak ditu, euskarak Unibertsitateko irakaskuntzari heldu beharra eta horretarako baldintzak zeintzu diren; geroxeago, 1977an, premia bera adierazten zuen Adrian Celaiak, «porque para que viva la lengua es indispensable que alcance todos los niveles de la cultura» (Deia, irailak 23). Nekez hartuko ditu inork buruberotzat eta erradikalizat bi gizonok.

Areago, legez ere onartua dago hori, euskal Estatutuak berak gaztelaniaren eta euskararen ofizialkidetasuna aitortu duenetik. Beraz, indar morala eta soziala ezezik, indar juridikoa ere ba du gaurregun aspalditiko eskabideak.

Baina eztabaida sortzen da, nonbait, erabaki behar denean, noiz, nola eta zein neurritan sartu behar den euskara Unibertsitateko irakas-hizkuntza bezala. Behin baino gehiagotan entzun ohi dugu, euskara ez dagoela gaurko zientziaren eta teknikaren mailan erabiltzeko gaiturik, edota irakasleak eta ikasleak ez daudela euskarari aski trebaturik, eta, horregatik, ez dagoela Unibertsita-

tean —edo irakaskuntzaren beheragoko mailatan— erabiltzerik oraindik.

Unibertsitatea eta Kultura

Eritzi horrek zuzenetik erdia besterik ez dauka; okerretik du beste erdia. Unibertsitateaz adiera jakin bat nabarmentzen du: hau da, irakaskuntza-sistemaren erpina bezala hartzen da soilik unibertsitatea: Goi-mailako irakaskuntza litzateke besterik ez. Orduan, ondoriotzat ateratzen da, beheragoko mailako irakaskuntzak —lehen-mailakoak eta erdi-mailakoak— hizkuntzazko plataforma prestatu eta egokitu behar diotela Unibertsitateari, eta orduan bakarrik hasiko dela hori euskara erabiltzen.

Egiaren erdia besterik ez da hori. Izan ere, hori baino gehiago da Unibertsitatea. Ortega y Gasset-ek esaten zuen bezala, «Kultur mezua» transmititzea du lehen eginkizuna Unibertsitateak. Kultura, berriz, aurrenik, etniaren, herriaren bizia eta ondasuna da. Horregatik, Goio Monreal-ek honela definitzen du euskal Unibertsitatea: «Vehículo de expresión de la cultura específica del País Vasco». Eginkizun hori beteko baldin badu, ordea, Herri honen kultur dinamikaren barruan murgildurik egon behar du Unibertsitateak: hau da, Euskal Herriko dinamika ekonomiko, sozial eta politikoari erabat atxekirik, horretan oinarriturik, horren barrutik bere asmoak, programak eta helburuak eratzeko. Baina gure Herriaren kultur dinamika honetan, hizkuntzak

—euskarak—du garrantzi berezia; funtsezkoa, esango nuke.

Berreskurapena eta normalkuntza

Euskal Herria bere nortasuna aitortzeko, mamitzeko eta finkatzeko garaian dago; eta, neurri handi batez, euskal nortasuna baieztatzeak berreskurapena esan gura du gaur: kultur berreskurapena eta bereziki euskararena. Baina berreskurapenak berak izen zehatz bat du gaurregun gure artean: **normalpena**.

Hizkuntzalariek ematen dioten adiera jakinetik zerbait aldenduko banaiz ere, esagura zabala eta alderdi asko ditu euskararen normalpenak: linguistikoaz gain, normalpen legezkoaren, sozialaren, kulturazkoaren eta instituzionalaren bila dabil gaur euskara.

Berreskurapen- eta normalpen-prozesu horren barruan du bere lekua euskal Unibertsitateak; ez edozein leku, behinena baizik. Monrealek berak esaten duenez, «la Universidad es protagonista en un proceso de recuperación lingüística». Horretarako Unibertsitateak bereganatu egin behar du aurrenik normalpen-dinamika, bere mailan eta barruan aurrera bultzatzeko. Euskal Herriko Unibertsitateerako Estatutuen proiektu batetan irakurria dut: «La UPV (Universidad del País Vasco) prestará particular atención al cultivo y desarrollo de la lengua y cultura vascas a fin de que, de manera inmediata, se inicie un proceso hacia la normalización y total incorporación en la vida universitaria». Poztekoa da oraingi erretorea bera ere horretaz kezkaturik dagoela ikustea, esaten duenean «La ascensión de nuestra cultura por parte de la Universidad: este es el reto de la década y de las décadas próximas».

Baina euskal Unibertsitateak ez du bere barrura bakarrik begiratu behar Herriaren, honen kulturaren eta hizkuntzaren normalpen-dinamikaren murgilduta dagoelarik, prozesu oso horren zerbitzuan dago; horrela bakarrik izango da herritarra euskal Unibertsitatea. Euskararen normalkuntza-prozesu osoaren eragile eta gidari izan behar du euskal Unibertsitateak, bere eginkizuna benetan beteko baldin badu: «protagonista izan behar du. Ez dauka zain egotea

rik, irakaskuntzako beheragoko mailatan normaltzen denerako, edo ta gizarte-sektoretan normalkuntza-prozesua nola bideratzen den begira.

Normalkuntza akademikoa eta soziala

Bi aldetara ekin behar dio, beraz, euskararen normalkuntzari Unibertsitateak, bere eragiletza eta gidaritza betetzeko: barrura, alderdi **akademikoiari**, eta kanpora, alderdi **sozialari**.

Lehenengoari dagokionez, hauxe irakurtzen dut oraingo erretorearen hauteskunde-programan: «Corresponde a la UPV/EHU el desarrollo y la fijación de la lengua a nivel universitario, el responsabilizarse de la competencia lingüística de los titulados que han de ejercer la profesión de manera bilingüe, y la realización de sólidas experiencias docentes e investigadoras en euskara».

Ongi formulaturik daudela uste dut Unibertsitateak, barrura begira, euskararen normalkuntzari buruz dituen eginkizunak. Bide horretatik euskal Unibertsitatearen azpiegitura landuz joan beharra dago. Hirutan bana daiteke hori: hizkuntzazkoa, pertsonala eta bibliografikoa.

Euskara gaitu. Zientzi mailako hizkera eta lexiko teknikoak landu beharrekoak dira, Unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerkuntzan erabiliko badira. Horretarako behar-beharrezkoak dira hiztegi sailkatuak, berezituak eta teknikoak. Baina, horiekin batera, euskara gaitu, erabiliaren erabiliaz gaituko da Unibertsitatean.

Irakasleak trebatu. Beren espezialitatearekin batera, alorreko euskara teknikoan gaitu behar dute Unibertsitateko irakasleak. Lehen aipaturiko artikuluan, bi baldintza ikusten zituen Patxi Altunak beharrezko, euskara Unibertsitateko irakasbide bezala sartzeko: a) «Euskararen jabe bikain eta trebe lirak irakasleak»; b) «Euskaraz dakiten ikasleak». Bigarren baldintza hau beheragoko mailetak eskola euskalduntzen den neurrian beteko dela dirudi; lehenengo betetzeko, ordea, ekinaldi handia bideratu beharra dago, oraindik ere, datozen urteotan «euskal Unibertsitatea» egiatzkoa bihurtuko bada. Horretarako alfabetatze teknikoak asmatu, programatu eta aurrera eramane behar.

Oinarrizko bibliografia prestatu. Oinarrizko kontsulta-liburuak eta

zientzia bakoitzeko hastapenezko liburu orokorrak, alde batetik, eta, bestetik, liburu klasikoak itzulpenak (jakintza-alor bakoitzekoak) prestatu behar dira, irakasleek eta ikasleek beren lanerako euskarazko azpiegitura bibliografikoa eduki dezaten.

Irakasleena eta bibliografiarena oso loturik doazkio, noski, euskararen beraren gaitzeari, ez bait dago abstraktuan edo laborategian euskara trebatzerik.

Baina akademikoaz gain, alderdi **soziala** du euskararen normalkuntzak; osoan hartu behar du euskal Unibertsitateak. Administrazioan eta gizarteko sektore guztietan euskara normalduko baldin bada, gidaritza teknikoak eta zientifikoa eskatzen du horrek, Unibertsitateak eman behar lukeena. Prozesu bizia da normalkuntzarena; instituzioetako eta gizarteko euskararen normalpenak eta Unibertsitate barrukoak elkarri eragiten diote. Baina gaurregun, Unibertsitateak kanpoko edozein sektore sozialetan, hizkera eta lexiko teknikoak eta berezituak erabiltzen dira. Gizarteari begira bizi den Unibertsitateari eskatzen zaio horien lanketa, zehaztapena eta finkapena eragitea, koordinatzea, gidatzea eta zuzentzea. Euskararen normalkuntza globalaren etengabeko premiei eta eskabideei adi egongo da horrelako euskal Unibertsitateak, bere «Servicio de extensión universitaria», horretarako, eratu.

Erantzukizun historikoa

Erantzukizun historikoa du Euskal Herriko Unibertsitateak, gaurregun, euskararen normalkuntza-prozesuan: gogoz eta zentzuz bere eskuetan hartzekoa.

Bide luzea izango da normalkuntzarena. Legezko dekretuak eta erabaki akademiko funtsezkoak eta erabatekoak beharrezkoak dira; baina ibiliaren ibiliaz ebakitzen bada bidea, erabiliaren erabiliaz bideratuko da euskara tekniko-berezitua, nahiz eta helburura iristeko, etengabe bide-zuzenketak egin behar izan. Unibertsitate osoaren, kultur instituzio berezituaren eta gizarte-sektore guztien arteko lankidetzaren biziaren, «hauzolanaren» tankera hartuko du horrela euskararen normalkuntzak. Horren koordinazioa eta gidaritza, berriz, euskal Unibertsitateak Euskal Herriari zor dizkio.

Eginkizun historiko horri erantzuteko, tresna instituzional egokiren bat eratu behar luke Euskal Herriko Unibertsitateak; benetako «Euskal Unibertsitatea» izatera iristeko, hain zuzen ere. Agian orain arteko «Gabinete técnico»aren hedapena izan daiteke instituzio hori. Izan ere, ez dirudi Filologi Fakultatearen gain ezar daitekeenik horrelako eginkizun akademiko-sozial zabala.

Ezaguna da, bestalde, hemengo Unibertsitateak euskara tekniko-berezitua normaltzearen eragitea eta koordinatzea ez dituela oraintxe arte bere gain hartu; lehen urrats serioa «Gabinete técnico» delakoaren eratzeta dela dirudi. Baina horren gorputza handitzea, sendotzea eta finkatzea eskatzen ditu normalkuntzaren eginkizun galantak. Nola egingo da hori? Horretarako ere, gizartearekiko eta kultur indarreko irekitasuna eta eritzi-zabaltasuna eskatu behar zaizkiola iruditzen zait, kanpoko ahaleginak aintzat hartuz, bereganatzeko edo koordinatzeko.

Bitartean, eta orain arte, kanpotik bultzatu eta koordinatu da, hain zuzen, euskararen normalkuntza, horrela Unibertsitateari berari zerbitzu bat eskainiz. Bereziki UEU eta horren inguruan eta horren koordinazio moralaren babesean sortu edo eratu diren hainbat instituzio edo talde pribatuen lankidetzaren oso garrantzizkoa izan da, euskara tekniko-berezituaren normalkuntza bideratzeko: UZEI, Elhuyar eta Unibertsitateko irakasle- eta ikasle-taldeak aipatzekoak dira, besteren artean. Guztien gainera, bere gidaritza gorena eskainiz eta euskararen batasuna arautuz, Euskaltzaindiak garrantzi apartekoa izan du, eta izango du, euskara tekniko-berezituaren normalkuntza akademikoa eta soziala aurrera eramane.

Euskal Herriko Unibertsitateak autonomia lortu orduko eta Euskal Herri osokoa izatera iritsi aurretik ere, bere eskuetan hartu behar luke euskararen normalkuntzaren dinamika, gidaritza teknikoak eta koordinazioa, horretarako Nafarroako eta Iparraldeko unibertsital Institutioekin lotura bereziak eratuz.

Bitartean, lan horretan dabiltzan erakundearen eta taldeen arteko lankidetzaren derrigorrezkoa izango da, normalkuntza kaosean eror ez dadin.